

I.1.2. Eguraldia

[2_Eguraldia.mp3](#)

Audioa entzun eta galderei erantzun.



01

Nork eman du informazioa?

- A. Kazetari batek.
- B. Euskadi irratiak.
- C. Irratiko albistegiak.
- D. Euskalmet zerbitzuak.

02

Pirinioetan ekaitz arriskua dago baina beste leku batean ere bai. Non?

- A. Nafarroan.
- B. Hegoaldean.
- C. Ipar Euskal Herrian.
- D. Oro har, Euskal Herri osoan.

03

Zein da testuaren ideia nagusia?

- A. Oro har, euria egingo du; Pirinioetan, aldiz, eguzkitsua.
- B. Eguraldia oso eguzkitsua izango da, eta zerua guztiz urdina.
- C. Giro beroa egingo duela eta gauean ekaitz arriskua izango dela.
- D. Eguraldi nahasia egingo duela: ekaitza eta euria, hain zuzen ere.

04

Informazio zehatzagoa nahi baduzu, nora jo dezakezu?

- A. Ez dute esaten.
- B. Interneteko gunetara.
- C. Eguraldiari buruzko saioetara.
- D. Euskalmet izeneko egunkarira.

05

Zeri buruz hitz egiten da entzun duzun testuan?

- A. Ekaitz arriskuari buruz.
- B. Udako tenperaturei buruz.
- C. Pirinioetan egingo duen eguraldiari buruz.
- D. Euskal Herrian egingo duen eguraldiari buruz.